

**KOLDO MITXELENA ELISSALT
GOGOETA**



Denboraren joanean kolorgatzen dira, Koldo, bizitzeko ortzadarraren margoak. Hirurogeita hamabi izango dira, gehiago bere izan daitezke, edo gitxiago, baina ez dakit inoiz baten, ur

tantadun lainoa desagertzen danean, ez da argia deskonposatzen, lehentxoago ortzadar zana argi bilakatu da. Ez da ikusten. Bada-go egon, argiak, eguzkiarenak, hor dirau, baina ezin da kolorerik ikusi, pertsona hilak galdu dauz agiriko berezitasunak, argi izpiak gorde ditu betirako, gorritik morera doazen ortzadarraren koloreak. Bazara Koldo jauna baina ez zagoz, estaldu da zure ortzadarrak.

Goni. «y a veces no puedo menos de pensar si lo que pierdo en añoranzas nostálgicas no queda compensado por lo que gano en tranquilidad» idazten zenduan 1974.ean Salamankatik. Urte gehiegi joan ez badira bere ordurik, gora-behera asko bai gertatu dira. Euskadi, irakinean ageri zan, burruka biziko. Hiru urtez semaforo gorrian, zazpi eta gehiago horian emon izan dituanak alegia, ez dau giro goxoa aurkitzen belaualdi barrien burruka giro gorrira itzultzeko.

Laranja. Salamankako limoi helduak, lasaitasun giroa, Euskal Herriko ingurune ozpindua baino atseginago zan? Jokabide goxo-epela eztabaida baino? Geroko UZEI inguruko diatribetan ezagutu zaitudanetik, eztabaidari uko egiten deitsoen horretarikoa ez zara izan. Gertatzen dana da, edo izan daiteke, gaztarroan etxeakoak urrun izan dozuzanean, eta ikerketa arloak burdinarte jorratu, Esparta baino Athenas dala maitagarriago.

Bildurra zeuntson, -zeure berbak dira-, Euskadiko fenomeno seismikoen epikentrora hurreratzeari. Karakterragatik? Nabarmentzen zenduan erantzunkizunagaitik? Intelektualtasunak horretaratuta? Aspalditik hitanoka ezagutu izan zaituen Federiko Krutwigek, zu ez zarala sekula beragaz hasarratu dino. Hasarrekorra beraz? Beste honen besteren ustez bai. Ardura, zuk zeugan sentitzen zenduan honi eta handikoari erantzun beharragatik? Uler badakigu zer tragedia, nolako woltio aldaketa dan jendartean zabiltzan une berean, zeure barruan erabaki linguistikoak, akademikoak,... hausnartzen aritzea! Erantzunkizunaren hasarrea? Kanpoko axolagabekeria eta norbere barruko sugarraren artean bizi danak, ez dauka sarritan barre-zantzorako jokararik. Asto samatuegia izan zara aise ibiltzeko, agian, Mitxelena jauna.

Intelektualtasuna, alegia, Salamankan egokiago hemen baino? On litzake horretarako, Salamanka oste eta arteko idazlanen araketa. Ez dira hiru aste, Bernardo Atxaga idazle iaio, lau hilabetez Gaztelako lasaitasunean idazteari ekinik itzuli dala. Ez, edozelan bere, intelektual izatea holan ulertzen zendualako, gaur idazlumaugarik plazaratzen dabene intelektual hutsa, margo bakoa, artearen artetasuna konpromisoa barik sakontzea gogoko zendualako. Ez!

Hori. Bazenkien, Koldo, XX. gizaldiko inork jakitekotan, grekoz elektron anbar dala, anbar gogor bezain apurkorra, gorringo kolorea, aromatikoa. Anbarra. Gogorra! Ez harremanetarako lanerako baino gogorrago. Baina gogor! «Ken ezak traman-kulu hori sudur gainetik, edonor akabatzeko ere izan liteke etal», bota zeuntson videoa eskuan inguratu jatzun kazetariari Ustari-tzeko UEUn. Antzera Ertzilla Hotelean, Euskaltzaindian, hemen, han. Hasarreak, hizkuntza sailekoak ziranean ulertu egin beharko ziratekeen, ezagutu ondoren, alde nahiz kontra jarri ahal izateko, agian. Hizkuntzalaritzako eraikuntza ez eban arkitektoak kontrolatzen. «Gerra, espetxea, ikerketa baliozkoak, behar ninduzuela eta, orain ez didazue, neure gaian kasurik egingo?» «Hain obra konplexuari dagokion oreka, neurria, ez didazue gazteok zaintzen!» Baina bestalde, Koldo jauna, herri dynamikak ekarren erritmoa, Salamanka atze nahiz aurretik etorren, erantzun egin behar zan. Alegia, egoeraren dynamika zan errudun, ez urlia eta sandia.

Bai anbar apurkorra bere, zeozero jakin guraz hubildu zaran bospasei alditan. «Aizu, zera...», artikulua horiek... Ez ditut nik ulertzen, Koldo!» «Pozen naiz, ulertzen ez nituen bakarra nintzela uste bainuen!» «Bai niri jin-tonic bat!» «Zera...», entzun, jakin izan dut... Zuk zer deritzozu?» Horretan, gizon!

Gainera, anbar zatia hartzen badozu eskuan eta igurtzi, behin eta barriro, eguneroko lanean, anbarrek ekarri egingo deusuz inguruko gauzak, pertsonak. Milaka euskaltzale ditu zure filologigintzak erakarri, Mitxelena jauna. Erakargarritasunaz, anbarren jakituriatzko aromari darion duitasun partaz. Orain, gal-

du dauanean erakartzeko ahalmena, elektrizitatea, anbarak, sakabanatu egingo dira epe laburrera, anbar barrien indarraren arabera euskaldungoaren olympoa antolatu arte.

Urdin. Beste askotan lez mahaiburu zara. Oraingoan Grosen zagoz, itsaso aurrean. Bazkalosteko lo kukuan sartu zara ikasleak azterketan dihardutela. tribunalkideak ixilik. Ez da eulirik entzuten. Mahai gainean daukazuz betaurrekoak. Burua iraularik, gerizpetan. «Neure aitaren adinekoa da ba eta! Ez al da, ba, aitita? «Guzti honek ez ete dauka bizirza publikuan zerikusirik? «Agian, behar dau urteetan sartutako irakasleak adinari dagokion erritmoa, patxada, argien artean argiena izan arren». Gerotxoago gogoz astinduko dozuz azterketak, baina inork baino kalifikapen garaia goa emon. Hasarreak, agirikaldiak, lehenago eta ondoren, orain lasai hartu atseden!

More. Pertsona apalari morea badagokio, badagokizuke, Koldo jauna. Beti bere, apala umil ari danean, ezen Arturo Campionen Jardunaldietan mahaikide genduan irakasle germanofiloari hasarratu zintxakozanean emon zeuntson astinaldi diakhroniko-sinkhronikoa ezagututa. Gazteak! Eta Ozeaniako hizkuntzei buruz, aizul Quod natura dat Salmantika auget!

Anil. Euskeraren ur nahastuetan isuri dozuzan anil goilarekadek oso zuritu dabe, Mitxelena jauna, hizkuntzalaritze, ikerketa giroa. Salamankatiko etorreraz, euskal estudioak intelektual giroetan homologatu eta gero, hamaika euskaltzale hurreratu jatzu tesisa zein argitalpenak eskuan hartuta, zure jakituriaren bai onespina eta bai maisu zoriona bilatzen.

Orlegi. Edozelan bere, Mitxelena jauna, goizegi aldendu zarelarela esango neuke. Hazia erein dozu, bai lurra hezetu bere, baina soloari begirada arina botaez gero, heldu gabeak badira, erne bakoak gehiago, eta osoan hartuta gordin, berde oraindik. Euskararen zorionerako, beharginak inoiz baino gehiago. Hori bai! Bai urdinak, bai horiak nahiz gorrietarikoak. Ortzadar bakarrean batu behar direla zazpi margoak, zure batuan, zazpi eduki arren bat izatea delako eder... Bai!

Zure ortzadar gorria, anbar zein beilegia, zurigarria, morea,
urdin eta itxaropentsua argi bilakatu da.

Zure lana, «aere perennius» egiazki, eta zure izena elkarre-
kin biziko dira, -idazten zeuntson R. M. Azkue hilari 1965.ean-
bata besteari loturik iraungo dute, gizonaren lanak eta izenak
iraun dezaketen adina. Munduan euskaldunik deino bai behin-
tzat».

Juan Luis Goikoetxea Arrieta
1987-11-23.